

(Prentsa ohar hau berrikusi egin da lurraldeko enpresa kopuruan errorea antzaman ondoren)

INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIEN SEKTOREA-IKT. 2015

## Euskal AEn, 2015ean IKT sektoreak balio erantsiaren %2,4 ekarri, eta langile okupatuaren %2,1 enplegatu

**IKT sektoreko enpresen %68,3 merkataritza elektronikoa aritu ziren; sektore guztiak aintzat, %26,4**

Eustaten datuen arabera, IKT sektorean (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak), 2.511 enpresa eta 21.343 lanpostu geneuzkan Euskal AEn 2015ean, euskal ekonomian okupatuaren %2,1. Sektore honen negozio-zifra, 3.381,4 milioi; balio erantsia 1.505,5 milioi (guztiaren %2,4).

Aurreko urtearen aldean, 2015ean, okupatuetan %1,4ko gehikuntza (+297); establezimenduetan %1,7 (+42); establezimenduko batez besteko tamaina, 8,5 pertsona. Negozio-zifran %2,9; balio erantsian %+0,6. Ekonomia osoari begiratuz gero, sektorearen pisua hamarren batez txikitu da, bai enpleguan, bai balio erantsian.

### 1. taula: IKT sektorearen magnitude nagusiak, lurralde-eremuaren eta jarduera-sektorearen arabera (bb). 2015

	Enpresa kopurua	Landun kopurua	Negozio kopurua (1)	Balio erantsia (1)
<b>IKT sektorea guztira</b>	<b>2.511</b>	<b>21.343</b>	<b>3.381,4</b>	<b>1.505,5</b>
<b>Lurralde historikoa</b>				
Araba/Álava	318	2.286	334,7	134,0
Bizkaia	1.515	12.645	2.188,1	991,0
Gipuzkoa	740	6.412	858,6	380,5
<b>TIC sektorea</b>				
<b>Industria</b>	68	4.019	470,6	172,1
<b>Zerbitzuak</b>	2.443	17.324	2.910,8	1.333,4

(1) Milioika eurotan

(bb) Behinbehineko datuak


**Iturria: Eustat. Informazioaren eta komunikazioaren teknologien sektorea-IKT**

### IKT sektorean, gainerakoetan baino I+G+b jarduera gehiago

IKT sektorean enpresen %6,9k I+G egiten du; gainerako sektoreetan %1,0k. Gainera, sektoreak –enpresa guztien %1,6- I+G egiten dutenen %10,9 biltzen ditu, eta enpresa-sektorearen I+G barne-gastuaren %7,2 -68,4 milioi- egikaritzen ditu; 2014koaren aldean, haren pisua gastu osoan bi hamarrenez gehitu da.

Sektorean 2015ean 1.304 langile aritu ziren I+Gn, dedikazio osoko baliokidetzan (enpresa sektore guztien %10,0; sektore guztien %7,2); 325 langile, emakumezkoak.

**1. grafikoa: I+G+b IKT sektoreko enpresetan eta sektore guztietako enpresetan. 2015. (%)**



Iturria: Eustat. Informazioaren eta komunikazioaren teknologien sektorea-IKT

Berrikuntzan, I+Gn bezala, alde esanguratsuak daude sektoreen guztirakoaren eta IKTren artean. 2015ean, IKT sektoreko establezimenduen %28,7k berrikuntzako jarduerak egin zituzten; sektore guztietan, %11,9k. Enpresaren tamaina kontuan, 10 langile eta gehiagokoetan, lehen kasuan %52,0, sektore guztietan %28,2.

Berrikuntzan IKT establezimenduek 173,6 milioi gastatu zituzten, enpresa guztienaren %7,1. Gastu horretatik, 154,8 milioi 10 langile eta gehiagoko establezimenduek eginak, tamaina horretako enpresen gastu guztiaren %7,4.

Begiratzen badugu zer den berrikuntzako eta I+G gastua negozio zifraren gainean (barne berrikuntzako eta barne I+G intentsitate-ratioak), begi bistakoa da, baita ere, IKT sektorean baliabide gehiago joan zirela I+G+bra gainerako sektoreetan baino. Berrikuntzaren intentsitatea 3,6 da sektorean eta 1,5 guztirakoan. Barne I+Gn ratioa 1,7 da IKTn eta guztirakoan 0,8.

**2. taula: IKT sektoreko barne Berrikuntzako eta I+Gko intentsitatea, lurralde-arlo, jarduera sektore eta enplegu-geruzen arabera (%). 2015**

	Guztira		10 langile eta gehiago	
	Berrikuntza intentsitatea	Barruko I+Garen garrantzia (2)	Berrikuntza intentsitatea (1)	Barruko I+Garen garrantzia (2)
<b>Sektoreak guztira</b>	<b>1,54</b>	<b>0,80</b>	<b>2,03</b>	<b>1,16</b>
<b>IKT sektorea guztira</b>	<b>3,56</b>	<b>1,67</b>	<b>3,66</b>	<b>1,73</b>
<b>Lurralde historikoa</b>				
Araba/Álava	1,59	0,65	1,60	0,67
Bizkaia	3,29	1,32	3,44	1,45
Gipuzkoa	5,32	3,32	5,66	3,41
<b>TIC sektorea</b>				
<b>Industria</b>	5,39	3,89	5,54	4,00
<b>Serbitzuak</b>	3,35	1,42	3,42	1,45

(1) Berrikuntzaren garrantzia: (berrikuntzako gastuak/negozioen kopurua)\*100


(2) Barruko I+Garen garrantzia: (barruko I+G gastuak/negozioen kopurua)\*100

Iturria: Eustat. Informazioaren eta komunikazioaren teknologien sektorea-IKT

***Bai IKT teknologiak, bai merkataritza elektronikoa zabalduago daude IKT sektorean sektoreen guztirakoan baino***

IKT teknologien erabilera oso zabaldua dago sektore honetako enpresen artean, baina merkataritza elektronikoaren erabilerak, gainerako sektoreetakoaren gaintik badago ere, ezarpen handirik gabe dirau, batez ere salmenten aldetik. Erosketak egindako establezimenduak %67,5 eta salmentak egindakoak %16,5; sektore guztietan %23,9 eta %6,5. Merkataritza elektronikoa dugu IKT establezimenduen %68,3tan eta sektore guztien %26,4tan.

**2. grafikoa: IKT teknologien erabilera. 2015. (%)**




**Iturria: Eustat. Informazioaren eta komunikazioaren teknologien sektorea-IKT**

IKT sektoreak ondasunen kanpo merkataritzan duen eragina ez da oso esanguratsua. Esportazioak 293,7 milioi (guztien %1,3), guztirakoa 21.867,8 milioi; inportazioak 402,0 milioi (%2,4) guztirakoa 16.835,6 milioi.

Esportazioetan nabarmentzen dira: Osagai elektronikoak (%41,5) eta IKT beste produktuak (%30,4). Inportazioetan; Osagai elektronikoak (%21,5), IKT beste produktuak (%33,6), Telekomunikazio ekipoa (%23,4).

### 3. grafikoa: 10 langile eta gehiagoko enpresen alderaketa Euskal AEn eta Espainian (%). 2015



Iturria: Eustat eta EIN

### ***IKT sektoreak antzekoak dira oso Euskal AE eta estatuan; 2015ean euskal enpresak berritzaileago***

10 enplegatu eta gehiagoko enpresen IKT sektorearen Euskal AEko eta estatuen osotasunean, bada alderik adierazleetan. Euskadin enpresa berritzaileen portzentajea, berrikuntza intentsitatea, webak eta banda zabala handiagoak dira; merkataritza elektronikoa egiten duten enpresa portzentajea handiagoa da estatuaren osotasunean erkidegoan baino.

#### **Ohar metodologikoa:**

IKT sektorea manufaktura eta zerbitzuetako sektoreek osatzen dute; beren jardura nagusia Informazio eta Komunikazioaren Teknologien garapen, ekoizpen, merkaturatze eta erabilera intentsiboarekin lotuta dago. [Web Eustat. Fitxa metodologikoa: IKT sektorea](#)

#### **Informazio gehiago:**

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: [servicioprensa@eustat.es](mailto:servicioprensa@eustat.es) Tel.: 945 01 75 62

[Informazioaren eta komunikazioaren teknologien sektorea-IKT. Prentsa-ohar gehiago](#)